

Bronkiolitis akutua

Familiendako informazioa



Zer da bronkiolitisa?

- Bi urtetik beherako hurrei eragiten dien, **arnas infekzio birikoa da.**
- Batez ere neguan eman ohi da: hotzeriarekin, **eztularekin eta mukiekin hasten da.**
- 2-4 egun igaro ondoren, eztula okerragotu egiten da eta **arnasa hartzeko zailtasunak** ager daitezke: arnasketa azkarra, aztoratua eta bularraldeko soinuekin ("txistuak" edo "arnasestuak").
- Baliteke haurra suminkor egotea, gutxiago jatea eta **sukarra izatea.**
- **Kasu gehienak arinak izaten dira** eta egun batzuen buruan sendatu ohi dira. Hala ere, sintoma batzuek 3-4 aste iraun dezakete.




Zein da tratamendua?

- Etxean egindako zainketa orokorra da, sintomak arintzeko egin dezakegun tratamendu nagusia.
- Ez dago bronkiolitisa sendatzen duen botikarik.

Zer egin behar dugu?


- Beharrezkoa den guztietan, **haurrari sudurra garbi edukitzen lagundu** behar diogu, gatz serum fisiologikoarekin edo itsasoko urarekin (berezi hartuneak egin eta oheratu aurretik).
- Sudurra garbitu ondoren, arnasa hartzeko edo elikatzeko zailtasunak baditu, **sudurreko xurgatze arina egin daiteke.**
- **Haurra erdi-altxatuta mantendu.** Oheratzean, jarri haurtxoa ahoz gora eta sehaskaren oheburua **30° inguru** altxatuta.
- **Hartualdi zatikatuak eman** (kantitate txikiagokoak, baina maizago).



- Tabakoaren kea erabat saihestu.



- Giro tenperatura 20° inguruan mantendu.



- Ondoeza eragiten dion sukarra izanez gero, parasetamola eman.



- Adi alarma seinaleei, urgentziaz kontsultatzeko.



Noiz joan behar dugu osasun etxe bateko larrialdietara?

- Sudurra garbitu arren **arnasa hartzeko zailtasuna handitzen bada.**
- Arnasa **gero eta azkarrago hartzen badu.**
- **Bularra edo sabelaldea hondoratzen bada.**
- **Etenaldi luzeak egiten baditu arnasketan.**
- **Ezpainak urdinxkak badira.**
- **Suminkor edo erdi lo badago.**
- **Hartualdiekin asko nekatzen bada, jaten ez badu edo botaka egiten badu.**

Prebentzio neurriak

- Jarraitu haurtxoari **bularra ematen.**
- **Ez erre** haurdunaldian eta tabakoaren kea ekidin.
- Ahal dela, **ez joan espazio itxietara** eta jendetsuetara neguan.
- Ez jarri haurtxoa **arnas infekzioak** dituzten pertsonen eraginpean.
- **Eskuak garbitu**, gainazalak garbitu eta arnasketa sintomak izanez gero, maskara erabili.
- 23-24 denboraldian, Nirsevimab (Beyfortus®) muskulu barneko administrazioaren bidez, **arnas birus sinzitalaren prebentzioa eskainiko zaie**, sasoi garaian jaiotako haurrei.

Zalantzarik baduzu zure osasun etxeko ordutegitik kanpo, jarri harremanetan honekin:

Osasun aholkuko zerbitzua:

 948 29 02 90

 consejosalud@navarra.es

Argibide gehiago:

 <https://www.familiaysalud.es>



pdf Dokumentua